




GARAİKIDE

EUSKARAZKO ADIERAZPEN
ARTISTIKO GARAİKIDEAREN ERAKUSKETA

MUESTRA DE EXPRESIÓN
ARTÍSTICA CONTEMPORÁNEA EN EUSKERA

2017

IRAILA / URRIA
SEPTIEMBRE / OCTUBRE



GARAIKIDE

Euskararen erabilerak aspaldian erdietsi du garaikidetasuna. Poetak aipatzen zituen itsaso-bazterretxe eta mendi baserri oraindik biziez gain pausaleku berriak ditu egun.

Garaikidetasun modernoak bakarrik, bai arte eta kulturaren nola ekonomian eta gizartean oro har, emanen dio etorkizunean bizirauteko behar dituen erabilera eremua eta erakarpen indarra.

Hona hemen garaikidetasun horren zenbait agerkari. On egin diezaguten.



GARAIKIDE CONTEMPORÁNEO

La utilización del euskera ha conquistado hace tiempo la contemporaneidad. Nuevos espacios vitales se han añadido a su último cobijo en los caseríos de montaña y del borde del mar que cantaba el poeta. Sólo lo moderno contemporáneo, tanto en el arte y la cultura como en la economía y, en general, en la vida social, le puede conferir el espacio de uso y la fuerza de atracción que necesita para sobrevivir.

He aquí una muestra de esa contemporaneidad en las artes y en la cultura. Disfrutémoslas.



IRAILAK 29, OSTIRALA

19:30. Iturramako Civivoxa

ERTZA DANTZA KONPAINIA

Hariak 6 or.

//

IRAILAK 30, LARUNBATA

19:30. Iturramako Civivoxa

MURSEGO ETA AMORANTE

Banpiro maitaleak 8 or.

//

URRIAK 4, ASTEAZKENA

20:00. Nafarroako Antzerki Eskola

METROKOADROKA KOLEKTIBOA & PEZ LIMBO

Miss Karaoke 10 or.

//

URRIAK 10, ASTEARTEA

20:00. Nafarroako Antzerki Eskola

BEHEKO LARRAINE

Atte hil aurretik 15 or.

//

URRIAK 17, ASTEARTEA

20:00. Ziadadelako Arma Aretoa

Goizeko eskola emanaldiak urriaren 16 eta 17an

VAIVÉN PRODUCCIONES SL

Treblinkara azken trena 16 or.

(Gayarre Antzokia Fundazioarekin elkarlanean)

//

URRIAK 23, ASTELEHENA

19:30. Kondestable Civivoxeko Areto Gotikoa

IDURRE AZKUE ETA JOSEBA IRAZOKI

Dantzagurea 18 or.

//

URRIAK 25, ASTEAZKENA

19:30. Kondestable Civivoxeko Areto Gotikoa

HORMAN POSTER

Iragan perfektua 20 or.

29 SEPTIEMBRE, VIERNES

19:30. Civivox Iturrama

ERTZA DANTZA KONPAINIA

Hariak Hilos

p. 7

30 DE SEPTIEMBRE. SÁBADO

19:30. Civivox Iturrama

MURSEGO ETA AMORANTE

Banpiro maitaleak Vampiros amantes

p. 9

4 DE OCTUBRE, MIÉRCOLES

20:00. Escuela Navarra de Teatro

METROKOADROKA KOLEKTIBOA & PEZ LIMBO

Miss Karaoke

p. 11

10 DE OCTUBRE, MARTES

20:00. Escuela Navarra de Teatro

BEHEKO LARRAINE

Atte hil aurretik Antes de que muriese el padre p. 15

17 DE OCTUBRE, MARTES

20:00 Sala de Armas de la Ciudadela

Funciones escolares matinales el 16 y 17 de octubre

VAIVÉN PRODUCCIONES SL

Treblinkara azken trenak Último tren a Treblinka p. 17

(En colaboración con Fundación Teatro Gayarre)

23 DE OCTUBRE, LUNES

19:30. Sala Gótica de Civivox Condestable

IDURRE AZKUE ETA JOSEBA IRAZOKI

Dantzagurea Bailar por bailar

p. 19

25 DE OCTUBRE, MIÉRCOLES

19:30. Sala Gótica de Civivox Condestable

HORMAN POSTER

Iragan perfektua Pasado perfecto

p. 21

IRAILAK 29, OSTIRALA

19:30. Iturramako Civivoxa / Prezioa: 5 eur.



//// Gorka Bravo

ERTZA DANTZA KONPAINIA

Hariak

Hariak instant batean bizitza osoa sostengatzen zioten hariak hautsi, eta hutsetik hasi beharrean aurkitu den jendearen esperientziez osatutako antzezlan diziplina anitzekoa da.

Dantza garaikideak, giza tamainako panpinen manipulazioak eta **Harkaitz Canoren testuek** bat egiten dute benetako jendearen benetako istorioei gorputza emateko.

Askotan, pausuz pausu, etxe bat adreiluz adreilu eraikitzen den bezala, nolabaiteko ziurtasuna ematen digun bizitza bat eraikitzen dugu, edozein momentutan dena pikutara joan daitekeela kontuan hartu gabe. Eta, hain zuzen ere, dena hankaz gora jartzen den momentu zehatz horietan bakarrik ohartzen gara bizitzaren ahuleziaz.

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaria: Asier Zabaleta **Antzezleak:** Natalia de Miguel, Thiago Luiz Almeida, Caio Henrique de Souza, María Andrés, Claudio Rojas **Testuak:** Harkaitz Cano, Joseba Sarrionaindia **Koreografia:** Asier Zabaleta antzezleen laguntzaz **Panpinen egilea:** Urko Redondo **Argien diseinua:** Junki Gonzalez **Eszenografia:** Pello Artola

29 DE SEPTIEMBRE, VIERNES

19:30. Civivox Iturrama / Precio: 5 eur.



//// Gorka Bravo

ERTZA DANTZA KONPAINIA

Hariak Hilos

Hariak es una obra multidisciplinar creada a partir de las experiencias de gente que ha visto cómo los hilos que sostenían sus vidas se han quebrado repentinamente, teniendo que comenzar una nueva vida desde cero. **Danza contemporánea**, manipulación de **marionetas de tamaño real** y **textos de Harkaitz Cano** se conjugan para contar historias de verdad, de gente de verdad. A menudo, como si de una casa que se erige ladrillo a ladrillo se tratara, vamos construyendo paso a paso nuestras vidas aparentemente seguras, sin ser conscientes de que en cualquier momento todo lo construido se puede venir abajo a causa de acontecimientos que no podemos controlar. Desgraciadamente solo en esos precisos momentos de confusión nos damos cuenta de lo frágil que puede llegar a ser la vida.

FICHA ARTÍSTICA

Dirección: Asier Zabaleta **Reperto:** Natalia de Miguel, Thiago Luiz Almeida, Caio Henrique de Souza, María Andrés, Claudio Rojas **Textos:** Harkaitz Cano, Joseba Sarrionandia **Coreografía:** Asier Zabaleta e intérpretes **Autor de los muñecos:** Urko Redondo **Diseño de las luces:** Junki Gonzalez **Escenografía:** Pello Artola



//// Unai Huici

MURSEGO ETA AMORANTE

Banpiro maitaleak

Mursego Maite Arroitajauregiren bakarkako proiektua da; Arroitajauregi biolontxelo-jotzaile aritu izan da Anari, Lisabö, Xabier Montoia eta Ama Say taldearekin. Lau disko argitaratu eta filmetako zenbait soinu-banda konposatu ditu, bai eta dantza eta antzerkiarekin lotutako hainbat proiektutan parte hartu ere. Biolontxeloa eta ahotsaz gain honako hauek baliatzen ditu: loop station-a, txilibitua, txindatak, enbolo-txirula, ukelelea, autoharpa, txaloak... Haren abiapuntua musika klasikoa bada ere, herri-musikako eta rock taldeen eragina ere izan du (Mikel Laboa, Matt Elliot, Pixies...).

Iban Urizarek bi hamarkadatik gora daramatza musikaren munduan murgilduta. Zenbait proiektutan parte hartu du (Café Teatro, Mengele Quartet, Bizarra, Sinuose, Andraka...) eta hainbat artistarekin lan egin du, besteak beste, We are Standard, Joseba Irazoki eta Napoka Hiriarekin. **Amorante** bakarkako proiektuan musika tradizionala eta herrikoia esperimentazioarekin eta inprobisazioarekin uztartzen du.

Banpiro maitaleak ekitaldian hiru zatitan banatutako ikuskizuna eskainiko digute. Parte batean elkarrekin joko dituzte zenbait gai eta gainerako bietan nork bere errepertorio propioa aurkeztuko digu.

FITXA ARTISTIKOA

Musikariak: Maite Arroitajauregi (Mursego) eta Iban Urizar (Amorante)

30 DE SEPTIEMBRE, SÁBADO

19:30. Civivox Iturrama / Precio: 5 eur.



//// Cedida por la compañía

MURSEGO ETA AMORANTE

Banpiro maitaleak Vampiros amantes

Mursego es el proyecto en solitario de **Maite Arroitauregi**, cellista de grupos como 'Anari', 'Lisabö', 'Xabier Montoia' o 'Ama say. Ha publicado cuatro álbumes, compuesto varias bandas sonoras de películas y participado en diferentes proyectos relacionados con la danza y el teatro. Además del cello y la voz utiliza el loop station, chiflo, platillos chinos, flauta de émbolo, ukelele, autoarpa, palmas... Proviene de la música clásica aunque ha recibido influencia de grupos de música popular y rock (Mikel Laboa, Matt Elliot, Pixies..)

Iban Urizar lleva más de dos décadas inmerso en el mundo de la música. Ha participado en diferentes proyectos (Café Teatro, Mengele Quartet, Bizarra, Sinuose, Andraka...) y colaborado con artistas como We are Standard, Joseba Irazoki o Napoka Hiria entre otros. **Amorante** es su proyecto en solitario que aúna la música tradicional y popular con la experimentación y la improvisación.

En **Banpiro maitaleak** nos presentan un espectáculo dividido en tres partes. En una de ellas nos ofrecerán una serie de temas interpretados conjuntamente y en las dos restantes cada uno desgranará su propio repertorio.

FICHA ARTÍSTICA

Músicos: Maite Arroitauregi (Mursego) e Iban Urizar (Amorante)

URRIAK 4, ASTEAZKENA

20:00. Nafarroako Antzerki Eskola / Prezioa: 5 eur.



////// Iñigo Perez Picazo

METROKOADROKA KOLEKTIBOA & PEZ LIMBO Miss Karaoke

Miss Karaoke-k abesti bat kantatzeko enkargua jaso du, eta urduritzen hasia da. Zer kantatuko du Ebento Handian, Antolatzaile Handiaren enkarguz, Jende Guztiaren aurrean? Are gehiago, zein hizkuntza aukeratuko du? Gutxiengo gutxitu, gehiengo gutxitu, gutxiengo gehiengotu edo gehiengo gehiengotuagotuentsat kantatuko du? «Zerk definitzen zaitu?», «Identitatea aukeratu egiten da, edo identitateak aukeratzeko zaitu zu?». Era horretako galderei erantzuna bilatuko die Miss Karaokek, bere barne ahotsekin talkan. Umorea, absurdoa eta performance arima uztartzen dira eszena-lan honen taularatzean

FITXA ARTISTIKOA

Testua: Oier Guillan **Aktoreak:** Javier Fernandez, Unai Lopez de Armentia, Marina Suarez Ortiz de Garate, Iñaki Ziarrusta **Dramaturgia:** Metrokoadroka eta aktore taldea **Zuzendaritza artistikoa:** Oier Guillan, Javi Barandiaran eta Metrokoadroka **Jantziak eta eszenografia:** Idoia Beratarbide & Maria de Bernardo **Argiztapena:** David Alcorta

4 DE OCTUBRE, MIÉRCOLES
20:00. Escuela Navarra de Teatro / Precio: 5 eur.



//// Inigo Perez Picazo

METROKOADROKA KOLEKTIBOA & PEZ LIMBO

Miss Karaoke

Miss Karaoke ha recibido el encargo de cantar una canción, y empieza a sentirse inquieta. ¿Qué va a cantar en el Gran Evento, por encargo del Gran Organizador, ante Todo el Mundo? Es más, ¿en qué idioma va a cantar? ¿Cantará para las minorías minorizadas, para las mayorías minorizadas, para las minorías mayorizadas o para las mayorías macromayorizadas? “¿Qué te define?”, “¿Se puede escoger la identidad, o la identidad te escoge a ti?” Miss Karaoke intentará responder ese tipo de preguntas, en lucha continua con sus voces interiores. Este trabajo escénico parte del humor, del absurdo y de un alma de performance.

FICHA ARTÍSTICA

Texto: Oier Guillan **Actores:** Javier Fernandez, Unai Lopez de Armentia, Marina Suarez Ortiz de Garate, Iñaki Ziarrusta **Dramaturgia:** Metrokoadroka e intérpretes **Dirección artística:** Oier Guillan, Javi Barandiaran y Metrokoadroka **Vestuario y escenografía:** Idoia Beratarbide & Maria de Bernardo **Iluminación:** David Alcorta





URRIAK 10, ASTEARTEA

20:00. Nafarroako Antzerki Eskola / Prezioa: 5 eur



//// Ainhoa Resano

BEHEKO LARRAINE

Atte hil aurretik

Maxusek bere biloba Aneri gauero ipuin bera kontatzen zion. Bi hilabete egin du ordea historio hori azkenekoz entzun zuenetik. Ihauteriak hemen dira berriz eta urtero bezala Erremosenea baserriko harategian ospatzeko erabakia hartuko du Anek. Bere amonak utzitako hutsuneak eta ihauteriek sakonki zirikatuko dute Ane, oheratzean entzuten zuen ipuin hark ezkutuan zeraman benetako esanahia agerian utziz.

Komediak eta tragediak markatutako bideak jarraituz, sekretuen munduan murgilduko gara.

Aktore bakarra. Hiru pertsonai. Objetuen erabilpen eta argi jokoen bitartez, espazio eta garai ezberdinetatik bidaiatuko du publikoak.

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaria: Maika Etzekopar **Idazlea eta aktorea:** Miren Tirapu **Argien**

diseinua: Atx **Eszenografia eta atrezzo:** Joxean Goya **Jantziak:** Beheko

Larraine **Soinua:** Pierre Visler

10 DE OCTUBRE, MARTES

20:00. Escuela Navarra de Teatro / Precio: 5 eur.



BEHEKO LARRAINE

Atte hil aurretik Antes de que muriese el padre

Cada noche Ane escuchaba el mismo cuento de la abuela Maxus. Sin embargo, hace ya dos meses que oyó la historia por última vez. Llegan los carnavales y, como cada año, Ane ha decidido celebrarlos en el caserío Erremosenea. La ausencia de su abuela y la propia fiesta del carnaval van a conmover a Ane, desvelando el verdadero significado de aquel cuento de las buenas noches.

Una sola actriz. Tres personajes. Mediante juegos de luces y el uso de objetos, el público viajará a través de distintos espacios y épocas.

FICHA ARTÍSTICA

Directora: Maika Etxekopar **Autora y actriz:** Miren Tirapu **Diseño de luces:**

Atx **Escenografía y atrezzo:** Joxean Goya **Vestuario:** Beheko Larraine

Sonido: Pierre Visler

URRIAK 17, ASTEARTEA*

20:00. Ziudadelako Arma Aretoa / Prezioa: 15 eur.

Goizeko eskola emanaldiak urriaren 16 eta 17an



//// konpainiak utzitako argazkia

VAIVÉN PRODUCCIONES SL Treblinkara azken trena

Varsovia 1942. Umezurztegi bat, 200 haur judutarren bizilekua. Janusz Körzczak mediku eta pedagogoak, hango buru zelarik, haur-errepublika zinezko bat sortu zuen. Haurrekin eskuz esku jardunez, konstituzio bat sortu zuen, bere lege eta araudiekin, bai eta bere zigor-kodearekin ere.

Ikus-entzuleek parte hartuko dute horretan, antolamenduan, eguneroko errutinan, hango beldur eta alaitasunetan...

Jakinarazpen izugarri batek amaiera emango die hango ametsei, eta hango bizitzari: umezurztegitik alde egin behar dute eta tren bat hartu, Treblinkako sarraski-esparrura eramango dituen trena.

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaria: Mireia Gabilondo **Testua:** Patxo Telleria **Zuzendaritza**

laguntzailea: Kepa Errasti **Aktoreak:** Jose Ramon Soroiz, Maiken Beitia, Ander Irureta, Gorka Martin, Tania Fornieles, Nerea Elizalde, Jon Casamayor, Mikel Laskurain, Asier Hernandez **Espazio eszenikoa:** Fernando Bernues **Eszenografia:** Iñigo Lacasa **Atrezzo:** Julia Gysling **Jantziak:** Ana Turrillas **Musika eta soinu diseinua:** Iñaki Salvador **Diseinua eta argitazpena:** Xabier Lozano

17 DE OCTUBRE, MARTES*

20:00 Sala de Armas de la Ciudadela / Precio: 15 eur.

Funciones escolares matinales el 16 y 17 de octubre



//// Cedida por la compañía

VAIVÉN PRODUCCIONES SL

Treblinkara azken trena Último tren a Treblinka

Varsovia, 1942. Un orfanato con 200 niños judíos, liderado por el doctor y pedagogo Janusz Korczak quien organizó allí una verdadera república infantil. Trabajando mano a mano con los niños creó una constitución con sus leyes, reglamentos y también un código penal. Los espectadores serán partícipes de su organización interna, de su rutina diaria, de sus miedos y alegrías...

Una terrible noticia acabará con sus sueños y su existencia: deben abandonar el orfanato y dirigirse al tren que les llevará al campo de concentración de Treblinka.

FICHA ARTÍSTICA

Directora: Mireia Gabilondo **Texto:** Patxo Telleria **Auxiliar de dirección:** Kepa Errasti **Intérpretes:** Jose Ramon Soroiz, Maiken Beitia, Ander Irureta, Gorka Martin, Tania Fornieles, Nerea Elizalde, Jon Casamayor, Mikel Laskurain, Asier Hernandez **Espacio escénico** Fernando Bernués **Escenografía:** Iñigo Lacasa **Atrezzo:** Julia Gysling **Vestuario:** Ana Turrillas **Música y sonido** Iñaki Salvador **Diseño e iluminación:** Xabier Lozano

* En colaboración con Fundación Teatro Gayarre

URRIAK 23, ASTELEHENA

19:30. Kondestable Civivoxeko Areto Gotikoa / Prezioa: 5 eur.



//// Urtzi Mardaras

IDURRE AZKUE ETA JOSEBA IRAZOKI Dantzagurea

Pieza hau dantzatzeko egintza beraren ingurukoa da, dantzan egiteko plazerari, gogoak ematen digun mugitzeko moduari bide eman eta sortzen den askatasun-espazio horren ingurukoa. Esan dezakegu Dantzagurea kontzertu bat dela. Joseba Irazokiren kontzertu bat, baina “dantza gorputz” batekin. Azterlan zehatz batean, soinuaren bibrazioak gorputzean nola eragiten duen, nola aldatzen duen, nola zirrara eragiten duen eta nola islatzen duen lantzen dugu. Eta era berean nola mugimenduak berak dardar egiten duen espazioan eta arrastoak uzten bertan, eta nola Josebaren musikak Idurreri iradokitzen dizkion dantza egiteko modu ezberdinek oihartzun berezia hartzen duten eta nola itxuraldatzen diren eta haren jabe egiten diren.

FITXA ARTISTIKOA

Sorkuntza: Idurre Azkue **Antzezleak:** Joseba Irazoki, Idurre Azkue **Jatorrizko musika:** Joseba Irazoki **Argi diseinua:** Marc Cano **Jantzi diseinua:** Alberto Sinpatrón **Argazkiak / bideoa:** Urtzi Mardaras

23 DE OCTUBRE, LUNES

19:30. Sala Gótica de Civivox Condestable / Precio: 5 eur.



//// Urtzi Mardaras

IDURRE AZKUE ETA JOSEBA IRAZOKI

Dantzagurea Bailar por bailar

Esta pieza gira en torno al propio acto de bailar y en torno al espacio de libertad que se abre cuando realmente nos entregamos al placer de bailar y movernos como nos da la gana. Podemos decir que Bailar por bailar es un concierto. Un concierto de Joseba, pero con un “cuerpo de baile”.

Es un estudio exhaustivo que trabaja sobre cómo la vibración del sonido influye, modifica, impacta y reverbera en el cuerpo. Y a la vez cómo el propio movimiento vibra en el espacio y deja rastros en él, utilizando las reminiscencias de diferentes formas reconocibles de bailar que la música de Joseba sugiere a Idurre, deformándolas y apropiándose de ellas.

FICHA ARTÍSTICA

Autora: Idurre Azkue **Intérpretes:** Joseba Irazoki, Idurre Azkue **Música original:** Joseba Irazoki **Diseño de luces:** Marc Cano **Diseño de vestuario:** Alberto Sinpatrón **Fotografías y vídeo:** Urtzi Mardaras

URRIAK 25, ASTEAZKENA

19:30. Kondestable Civivoxeko Areto Gotikoa / Prezioa: 5 eur.



//// David Ruiz

HORMAN POSTER

Iragan perfektua


Nola gogoratu bizi izan ez duzuna? Irudien bitartez? Zer gogora dezakegu? Irudiak baino ez? Iragan Perfektua zuri-beltzean egindako memoriaren eragiketa da. Gure bizitza markatu duen eta aldi berean ezezagun zaigun 70. hamarkadan zeharko ibilbidea: beti jakin nahi izan dugu nolakoak izan ziren haurtzaroko beste urte horiek, urte biolento, inkontziente horiek...

FITXA ARTISTIKOA

Sorkuntza eta ekoizpena: Horman Poster **Antzezleak:** Matxalen de Pedro eta Igor de Quadra **Laguntza artistikoa:** Ana Buitrago **Argazkiak:** Ander Lauzirika **Bideo ekoizpena:** Marcell Erdélyi

25 DE OCTUBRE, MIÉRCOLES

19:30. Sala Gótica de Civivox Condestable / Precio: 5 eur.



//// Cedita por la compañía

HORMAN POSTER

Iragan perfektua Pasado perfecto

Cómo recordar lo que no has vivido? ¿Con imágenes? ¿Qué podemos recordar? ¿Sólo imágenes? Pasado perfecto es una composición de la memoria en blanco y negro.

Un recorrido por los años 70 que nos marcaron y al mismo tiempo desconocemos: siempre me he preguntado cómo fueron esos otros años de infancia, de violencia, de inconsciencia...

FICHA ARTÍSTICA

Producción y creación: Horman Poster **Reparto:** Matxalen de Pedro e Igor de Quadra **Ayudante artística:** Ana Buitrago **Fotografía:** Ander Lauzirika **Vídeo:** Marcell Erdélyi

On-line: www.teatrogayarre.com

IRUÑEKO UDALA
KUTURAKO, HIZKUNTZA POLITIKAKO, HEZKUNTZAKO ETA KIROLEKO ALORRA
AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA
ÁREA DE CULTURA, POLÍTICA LINGÜÍSTICA, EDUCACIÓN Y DEPORTE
LG NA / 2041-2017
DISEINUA ETA ILUSTRAZIOAK: MARISA MANTXOLA

GARA\KIDE

EUSKARAZKO ADIERAZPEN
ARTISTIKO GARA\KIDEAREN ERAKUSKETA

MUESTRA DE EXPRESIÓN
ARTÍSTICA CONTEMPORÁNEA EN EUSKERA



ANTOLATZAILEA / ORGANIZA



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

LAGUNTZAILEA / COLABORA

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra